

# 11/14

## *irizpena*

Hotelen antolamendua ezartzen  
duen dekretua bigarren aldiz  
aldatzen duen  
Dekretu-Proiektuari buruzkoa.

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

# 11/14 IRIZPENA

## Hotel-establezimenduen antolamendua arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2014ko urriaren 3an

### I.- AURREKARIAK

2014ko irailaren 10ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako Sailaren idazkia sartu zen eta hotel-establezimenduen antolamendua arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dekretu-proiektuaren txostena eskatzen zuen, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

*Arauren xedea 102/2001 Dekretuak, maiatzaren 29koak, hotel-establezimenduen antolamendua zehazten duenak, xedatutakoan hainbat aldaketa egitea da. Laburbilduz, aipatu dekretuak 13. artikuluan jasotzen dituen dispentsen egungo erregulazioa garatu nahi da, baita taldea edo kategoria aldatzeko prozedura ere. Azkenik, publikitatean Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erregistroan inskribapen-zenbakia sartu beharriaren betekizuna zehaztu nahi da.*

Horren kopia berehala bidali zitzaion Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak egin eta iritzia emateko, baita lan-batzorde egokian lantzeko ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagokion Funtzionamendu Araudiak xedatutakoarekin bat.

Garapen Ekonomikorako Batzordea 2014ko irailaren 30ean bildu zen, Irizpen Aurreproiektuaren lehenengo proposamena eztabaidatzeko. Egun berean Batzordeak honako Irizpen Proiektua onartu zuen Euskadiko EGABren Osoko Bilkurak 2014ko urriaren 3an lantzeko. Aho batez onartu zen.

### II.- EDUKIA

Dekretu Proiektuaren testuak zioen azalpena, 7 artikulua, Xedapen Gehigarri bat, Xedapen Iragankor bat eta bi Azken Xedapen ditu.

#### Zioen azalpena

Oro har, kontsultatzen zaigun Dekretu Proiektuak hainbat aldaketa egin eta, ondorioz, egungo dispentsen erregulazioa konpontzea du helburu, oso diskrezionala baita. Aldi berean, kategoriaz eta taldez aldatzeko prozedura argitu nahi du.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Turistikoen Erregistroa arautzeko dekretua garatzea. Nolanahi ere, turismo-enpresa guztien eginbeharra izango da beren publikitatean identifikazio-zenbakia sartzea, kontratatutako zerbitzuak segurtasunez jaso ditzaten erabiltzaileen eskubideak hobeto bermatzeko.

Zioen azalpenean aipatzen den bezala, aldaketa guztiak 6/1994 Legearen helburuak eta xedeak (besteak beste, eskaintza turistikoen kalitatea hobetzea, zerbitzuen eskaintza osagarriak garatzea eta erabiltzaile turistikoa babestea) ziurtatzeko dira.

### **Xedapen-zatia**

**Lehenengo artikulua** hotel-establezimenduak antolatzen dituen maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretuaren II. Kapituluari dagokion izena aldatzen du.

**Bigarren artikulua** idazkera berria ematen dio maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretuaren 13. artikuluari. Horretan dispentsen araubidea arautzen da.

**Hirugarren artikulua** maiatzaren 29ko 102/2001 dekretuaren 15. artikuluko 1. atala aldatzen du.

**Laugarren artikulua** maiatzaren 29ko 102/2001 dekretuaren 16. artikuluari 3. atala eranstean dio.

**Bosgarren artikulua** maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretuan V bis Kapitulua eranstean du eta kategoriaren nahiz taldearen aldaketari buruzko da.

**Seigarren artikulua** berriz zerrendatzen du maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretua.

**Zazpigarren artikulua** maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretuan II. Eranskina eta III. Eranskina sartzen ditu.

**Xedapen Gehigarriak** zehaztutakoari jarraiki, turismo-enpresa orok bere publizitatean identifikazio-zenbakia sartu behar du.

**Xedapen Iragankorrek** ezarritakoaren arabera, dekretu hau indarrean sartzen denean ebatzi gabe dauden dispentsa-eskaerak eskatu zirenean indarrean zeuden xedapenekin bat izapidetu eta ebatziko dira.

**Lehenengo Azken Xedapena** dekretu hau garatu eta gauzatzeari buruzkoa da.

**Bigarren Azken Xedapenak** Dekretua indarrean sartzea lantzen du.

## **III.- SARRERA: ALDERDI INTERESGARRIAK**

Berritzeko aurkezten den dekretua apirilaren 16ko 201/2013 Dekretuaren bitartez (2013ko maiatzaren 17ko EHAA) berritu zen. Horretan hotel-establezimenduak antolatzeko dekretua aldatu zen. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barneko merkatuan zerbitzuei buruzkoa, EA Eren eremura pasatzea izan zuen helburu. Halaber, "Zerbitzuen" Zuzentaraua edo Bolkestein Zuzentaraua esan zitaion eta jada 13. artikulua berritzen zuen.

Orain kontsultatzen zaigun aldaketaren helburua indarreko testuan aldaketak egitea da. Laburbilduz, indarreko dekretuak (maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretua) 13. artikuluan jasotzen dituen dispentsen egungo erregulazioa garatu nahi da, baita taldea edo kategoria aldatzeko prozedura ere. Azkenik, publizitatean Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erregistroan inskribapen-zenbakia sartu behar diren betekizuna zehaztu nahi da.

Dekretu-proiektuaren txosten ekonomikoan jasotzen den bezala, dispentsa-prozedurak aldatuz, dagoen diskrezionalitatea deuseztatzen da eta dispentsetan esku hartzen duten baldintzak objektibotasun handiagoz landuko dira.

Aldi berean, erabiltzaileen babesa hobe bermatu nahi da eta, horretarako, enpresa turistikoek publizitate guztian Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erregistroaren identifikazio-zenbakia sartu beharko dute. Hala, erabiltzaile turistikoek eta turismo-ikuskaritzaren zerbitzuek legez kanpoko eskaintzak ezagut ditzakete.

Dekretu-proiektuaren txosten laburrean aipatzen den bezala, oraindik indarrean dagoen araudiarekiko berrikuntza esangarrienak ondorengoak dira:

- Dispentsen erregulazioa garatzea:
  - ✓ III. Eranskinean eskatutako baldintzak betetzeko orduan urritasunak orekatzeko faktoreak zehazten dira.

- ✓ Dispentsa eskatuz gero, establezimenduak izan nahi duen kategoriaren arabera, zerbitzu osagarrien gutxieneko ehunekoa zehazten da betetzeke.
- ✓ Dispentsetan mugak zehazten dira eta II. Eranskinean ikus daitezke.
- ✓ Egiaztatu ostean, establezimenduak balio arkitektoniko berezia duten eraikinetan kokatuak badaude, zuzeneko dispentsa berariaz jasotzen da. Gauza bera gertatzen da eraikin birgaituetan kokatzen badira eta horiek zonako arkitektura tradizional tipikoari erantzuten badiote. Dena den, hotel-establezimenduak konpentsazio-faktore batzuk bete beharko ditu eta kategoriaren arabera baremoa desberdina izango da.
- ✓ Zuzeneko dispentsa berariaz jasotzen da kalitate-maila zehatza betetzeari buruzko ziurtagiriak aurkezten dituzten establezimenduetarako. Hala ere, alde zuzetik, aurrekoaren modura, konpentsazio-faktore zehatzak bete beharko dituzte, kategoriaren arabera baremo desberdinekin.
- Kategoria eta talde desberdinak izan nahi badira, aitortutako baldintzak aldatzeko jarraitu behar den prozedura garatzen da.
- Honako baldintza zehazten da: turismo-enpresa GUZTIEK establezimenduari buruzko beren publizitate guztian identifikazio-zenbakia sartu behar dutela.

## IV.- GOGOETAK

### IV.1 Gogoeta Orokorrak

Euskadiko EGABk kontsultatzen zaion aldaketa egokituz jotzen du. Hala eta guztiz ere, bere ustez honako gogoeta gauzatzea bidezkoa da:

Dispentsa daitezkeen baldintzei, II. Eranskinean ("13.3. artikuluko 2. atalean aipatzen diren establezimenduek dispentsa izateko baldintzak") agertzen direnei, dagokienez, honako baldintza zehaztu edo, hori izan ezean, kendu beharko litzateke:

"Zerbitzuko langileentzako instalazioak. Sexuaren arabera banatuak. Nolanahi ere, gutxienez, aldagela izan beharko du".

Egungo idazkeran gizonekoentzat nahiz emakumezkoentzat aldagela bat nahikoa dela ondoriozta daiteke.

Egungo idazkera oso anbigua da eta 486/1997 Errege Dekretuak, apirilaren 14koak, lantokietan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak zehazten dituenak, xedatutakoaren kontra dator. Horretan hurrengoa argi eta garbi azaltzen da:

"Aldagelak eta garbitzeko lokalak nahiz komunak gizonekoentzat eta emakumezkoentzat bereziak egongo dira edo bananduta erabiltzen direla zaindu beharko da".

Horregatik, gure iritziz, gutxienez, langileen intimitatea ziurtatzeko aldagelak bananduak erabiltzen direla bermatu beharko litzateke eta hala agertu beharko luke.

#### **IV.1 Gogoeta bereziak**

##### **Bigarren artikulua, 102/2001 Dekretuak, maiatzaren 29koak, hotel-establezimenduen antolamenduari buruzkoak, 13. artikuluan xedatutakoari idazkera berria ematen diona.**

- 1. atalari dagokionez, honakoa eranstea gomendatzen da:

“Turismoaren arloan aginpidea atxikia duen sailak, ematen diren baldintzak batera haztatuta, txosten teknikoaren ondoren eta **establezimenduaren pertsona titularrak eskatu ostean**, salbuespenez arrazoituta dispentsa dezake...”.

- 5. atalari dagokionez, 6. atal berria eranstea gomendatzen da (eta hori 7. izanik):

“**Eskaeran dispentsa eskatzeko baldintza edo baldintzak, baita dispentsa eskatzea eragiten duten gorabeherak eta instalazioei, zerbitzuei nahiz hobekuntzei buruzkoak ere zehaztuko dira. Izan ere, azkenekoak ez-betetzea orekatzeko sartuko dira**”.

Justifikazioa gorabeherak eta arazoak nahiz hobekuntzak definitzean oinarritzen da, 41. artikulua berriak, goi-mailagoko kategoriara aldatzeari buruzkoak, xedatutakoarekin bat.


#### **V.- ONDORIOAK**

Euskadiko EGABren iritziz hotel-establezimenduen antolamendua arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko proiektua izapidetzea egokia da.

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



O.E. Presidentea  
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos